

## **MGEPEko diploma banaketa.**

2010/07/06

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko 2008-2009 promozioko Heziketa Zikloetako 100 ikaslek jaso zuten atzo euren diploma. Honela banatzen dira espezialidadeka: Industri ekipoaren mantenimendua (31 ikasle), Mekanizazio bidezko ekoizpena (17), Proiektu mekanikoen garapena (10), Sistema informatikoen administrazioa (10), Aplikazio informatikoen garapena (7), Telekomunikazio eta informatika sistemak (7) eta Errugulazio eta kontrol sistema automatikoak (17).

Ekitaldira gerturatu zirenek garai ezberdinetako ibilgailuen erakusketa eta MONDRAGON Korporazioaren city car (auto elektrikoa) berria ikusi ahal izan zuten.

Ivan Gallego Navas izan zen ekitaldiko hizlaria, auto elektrikoaren arkitektoa eta MGEPEko irakasle eta ikerlaria: "MONDRAGONeko auto elektrikoa. Etorkizunerako lankidetzat proiektu bat".

